

88/2022 EBAZPENA, BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZUZENDARI GERENTEARENA. HAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DA BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREAN GOI MAILAKO ANTOLAKUNTZAKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT BETETZEKO, ALDI BATERAKO, BARNE-SUSTAPENEZ ERAKUNDEAN, ZERBITZU EGINKIZUNEZ, ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENEZ.

Bat etorrita Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen abenduaren 18ko 235/2007 Dekretuaren 79. artikularekin, 2007-2009 urteetarako lan baldintzei buruzko Akordioaren Batzorde Misto Paritarioaren Akordioarekin, eta Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Akordioarekin, deialdi-ebazpen hau ematen da honako lanpostua betetzeko:

LANPOSTUA: GOI MAILAKO ANTOLAKUNTZAKO TEKNIKARIA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3.HE (Iraungitako derrigortasun-data)

FUNTZIOAK: Pazientearen Seguritasunaren arloa koordinatzea, BOMSeko seguritasun-erreferentearen eginkizunak bere gain hartuz, bai eta zuzendariordetzaren berezko beste funtzio batzuk ere (adibide gisa, eta ez zehatz-mehatz: hobekuntza- eta berrikuntza-egitasmoak diseinatzea eta garatzea, pazientearen ahotsa eta esperientzia, programa-kontratuaren kalitate-eranskina, lantaldeak erraztea, etab.).

LANTOKIA: BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA, Berrikuntza eta Sistemen zuzendariordetza

BALDINTZAK: (Betekizunak bete beharrekoak dira eskabideak aurkezteko epearen azken egunean. Agiriz egiaztatu behar dira, baldin eta CV aplikazioan balioztatuta ez badaude).

Aldi baterako barne sustapena eskatzen dutenentzat:

- Izatea Osakidetza-EOZko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea, edo lan-kontratudun langile finkoa.
- Jardunean egotea, eta edukitzea lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berdina edo baxuagoa beste kategorian.

RESOLUCIÓN 88/2022, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA RED DE SALUD MENTAL DE BIZKAIA POR LA QUE SE CONVOCA, PARA SU PROVISIÓN MEDIANTE PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL EN LA ORGANIZACIÓN, COMISIÓN DE SERVICIOS Y PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL ENTRE ORGANIZACIONES, UN PUESTO DE TCO. SUPERIOR DE ORGANIZACIÓN EN LA RED DE SALUD MENTAL DE BIZKAIA.

De conformidad con lo establecido por el artículo 79 del Decreto 235/2007, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el Acuerdo de la Comisión Mixta Paritaria del Acuerdo de condiciones de trabajo 2007-2009 y en el Acuerdo de Consejo de Administración de Osakidetza de 9 de mayo de 2011, se procede a dictar la presente Resolución de convocatoria para la provisión del puesto:

PUESTO: TECNICO SUPERIOR DE ORGANIZACIÓN.

PEFIL LINGÜÍSTICO: PL3 (Fecha preceptividad vencida)

FUNCIONES: Coordinación del área de Seguridad de Paciente, asumiendo las labores de Referente de Seguridad de la RSMB, así como otras funciones propias de la subdirección (como, por ejemplo, a título meramente indicativo y no exhaustivo: diseño y desarrollo de proyectos de mejora e innovación, voz y experiencia de paciente, anexo de calidad del contrato programa, facilitación de equipos de trabajo, etc.)

LOCALIZACIÓN: RED DE SALUD MENTAL DE BIZKAIA, Subdirección de Innovación y Sistemas

REQUISITOS (Deben cumplirse al último día de plazo de presentación de solicitudes. Se acreditarán documentalente salvo que consten como validados en la aplicación de CV):

Para los solicitantes de Promoción Interna Temporal

- Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de Servicios de Osakidetza-SVS.
- Estar en servicio activo y pertenecer a otra categoría de igual o inferior nivel de titulación que aquella a la que se opta.

- Karrerako funtzionarioen, estatutupeko langileen, edo lan-kontratudun langile finkoren izendapenik ez edukitzea Goi Mailako Antolakuntzako Teknikari kategorian, egoera administratiboa edozein dela ere, izendapenari edo kontratuari dagokienez.
- Baldin eta parte hartzen bada erakunde honetako langileen barne-sustapenean, atxikita egotea BOMSI langile finko moduan.
- Baldin eta parte hartzen bada zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne sustapenean, atxikita egotea BOMS ez beste erakunde bati, langile finko moduan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago eramatea, etenik gabe.
- Titulazioaren jabe izatea, bat etorrita Osakidetza-EOZko Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin, eta deitutako azken EPEko Goi Mailako Antolakuntzako Teknikari kategoriaren oinarrietako bestelako titulazio-eskakizunekin.

Zerbitzu eginkizunak eskatzen dituztenentzat:

- Izatea Osakidetza zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratudun langile finkoa, edo Osasun Sistema Nazionaleko gainontzeko osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratudun langile finkoa Goi Mailako Antolakuntzako Teknikari kategorian/lanpostu funtzionalean.
- Jardueran izatea, eta lanpostuak betetzeko eskaera egitea interesdunak lanpostua jabetzan ez duen beste erakunde baterako; edo zerbitzu aktibora itzuli ondoren, eta behin-behinean atxikita izanik, eskaera egitea beste zerbitzu-erakunde baterako.

EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK

Esperientzia edo prestakuntza arlo hauetan guztietan edo batzuetan:

- Pazientearen segurtasuna:
 - Pazientearen segurtasunaren arloan bigarren eta hirugarren biktimizekin esku hartzea
 - Kaltea duen eta kalterik ez duen pazientearen segurtasun-gertaeren jakinarazpena
 - Pazientearen segurtasun-gertaerak aztertzea eta kudeatzea
 - Erorikoen prebentzioa osasun-arretan

- No tener nombramiento como funcionario de carrera o personal estatutario fijo, o contrato laboral fijo, de la categoría de Técnico Superior de Organización, cualquiera que sea la situación administrativa en la que se encuentre en relación con dicho nombramiento o contrato.
- Estar adscrito como personal fijo a la RSMB, en el supuesto de promoción interna entre el personal de la RSMB.
- Estar adscrito como personal fijo a una organización de servicios distinta a la RSMB, en el supuesto en el supuesto de promoción interna temporal entre organizaciones de servicios.
- Si está en promoción interna temporal en puesto de la misma categoría, llevar más de un año de forma ininterrumpida en esta situación.
- Estar en posesión de la titulación establecida en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza-svs y del resto de requisitos de titulación exigidos en las bases de la convocatoria de la categoría de Técnico Superior de Organización en la última OPE.

Para los solicitantes de comisión de servicios:

- Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de servicios de Osakidetza-SVS o funcionario/a de carrera o estatutario fijo del resto de los servicios de salud del Sistema Nacional de Salud en la categoría/puesto funcional de Técnico de Organización
- Estar en servicio activo y efectuar la solicitud para la cobertura de puestos en Organización de Servicios distinta de aquella en la que se tenga plaza en propiedad o a la que se esté adscrito por reingreso provisional al servicio activo.

CONOCIMIENTOS ESPECÍFICOS

Experiencia o formación en todas o alguna de las siguientes áreas:

- Seguridad del paciente:
 - Intervención con Segundas y Terceras víctimas en el ámbito de la Seguridad del Paciente
 - Notificación de incidentes de seguridad de paciente con daño y sin daño
 - Análisis y gestión de incidentes de seguridad del paciente

- Bilera/lan-taldeen erraztailea
- Kudeaketa Aurreratuaren Eredua
- Sormena eta ideien kudaketa
- UNE-EN ISO 9001:2015
- Kudeaketa sanitarioa

Ofimatikako ezagutzak

BAREMAZIOA:

Aldi baterako barne muqikortasuna:

1-Oposizioaldia (100 puntu gehienez ere).

2-Lanbide-esperientzia: (80 puntu gehienez ere).

Kontuan hartuko da eskabideak aurkezteko epea zabaldu arte aitortu zaien zerbitzu denbora-tartea.

Zerbitzu-eginkizunak:

Lanbide-esperientzia aintzat hartuko da kategoria honen azken leku-aldatze lehiaketan ezarritakoaren arabera (gehienez, 47,5 puntu)

Kontuan hartuko da eskabideak aurkezteko epea zabaldu arte aitortu zaien zerbitzu denbora-tartea.

ESKABIDEAK NON ETA NOIZ AURKEZTU:

- Interesdunek, behin baterik datu pertsonal guztiak, eskabideak bidaliko dituzte BOMSeko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Maria Diaz de Haro, 58, 48010 Bilbo). Eskabidearekin batera SAPeko giza-baliabideetako kudeaketa sisteman jaso gabeko Osakidetzatik kanpo egindako zerbitzuen egiaztagiria eta hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria bidali behar dituzte.
- Aurkezteko epea: 20 egun baliiodun, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

LEHENTASUN-HURRENKERA

Lanpostua betetzeko, hau izango da lehentasun-hurrenkera, beti ere, eskatutako ezagutza espezifikoko egiaztatzen baldin badira:

1. Aldi baterako barne sustapena erakundean. Sistema hau erabilita lanpostua beteko ez balitz, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoa aplikatuko da.

- Prebención de caídas en la atención sanitaria

- Facilitación de reuniones/equipos de trabajo
- Modelo de Gestión Avanzada
- Creatividad y gestión de ideas
- UNE-EN ISO 9001:2015
- Gestión sanitaria

Conocimientos de ofimática

BAREMACIÓN:

En caso de Promoción Interna Temporal:

1-Fase de oposición (máximo 100 puntos).

2-Experiencia profesional (Máx. 80 puntos).

Se computará el tiempo de servicios que tuvieran reconocido hasta la fecha de apertura del plazo de presentación de solicitudes.

En caso de Comisión de Servicios:

Experiencia profesional en los términos del último concurso de traslados de esta categoría (max.47,5 puntos).

Se computará el tiempo de servicios que tuvieran reconocido hasta la fecha de apertura del plazo de presentación de solicitudes.

PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES Y PLAZO:

▪ Los/as interesados/as deberán dirigir su solicitud cumplimentada con todos sus datos personales y acompañada de "Curriculum Vitae" documentado (salvo quienes lo tengan validado en la aplicación informática) a la Dirección de Personas de la RSMB (c/M^a Diaz de Haro nº 58, 48010 Bilbao, Bizkaia.)

▪ El plazo de presentación será de 20 días hábiles a contar a partir del día siguiente a la publicación de la presente convocatoria.

ORDEN DE PRIORIDAD

El orden de prioridad para la cobertura del puesto, siempre que se acrediten los conocimientos específicos requeridos, será el siguiente:

1. Promoción Interna Temporal en la organización. En el supuesto de que utilizando este sistema el puesto no se pudiera cubrir, se acudirá al previsto en el párrafo siguiente

2. Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hau erabilia lanpostua beteko ez balitz, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoa aplikatuko da.
3. Erakundeen arteko aldi baterako barne sustapena

BALORAZIO-BATZORDEA:

Aurkeztutako eskabideak baloratzeko batzorde bat eratu da, eta honako hauek osatuko dute: zuzendari gerenteak, zuzendari medikoak, Pertsonen zuzendariak eta idazkari-lanak egingo dituen Pertsonaleko Zerbitzuko goi-mailako teknikari batek.

HAUTAKETA PROZEDURA

Batzordeak baloratuko du interesatuek behar den garaian eta moduan aurkeztutako dokumentazioa. Balorazioa eginda, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio batzordeak bete gabe utzi ahal izango du deialdia, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN KONTRAKO ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsua jarri ahal zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiarri, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2. Comisión de Servicios. En el supuesto de que utilizando este sistema el puesto no se pudiera cubrir, se acudirá al previsto en el párrafo siguiente
3. Promoción Interna Temporal entre organizaciones

COMISIÓN DE VALORACIÓN:

Se constituirá una Comisión para la valoración de las solicitudes presentadas, integrado por el Director Gerente, el Director Médico, la Directora de Personas y una técnico superior del Servicio de Personal que actuará como secretaria.

PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN

La Comisión valorará la documentación presentada en tiempo y forma por los interesados. A la vista de lo anterior elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. La comisión de valoración podrá declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

RECURSOS CONTRA LA PRESENTE RESOLUCIÓN

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

Bilbon, 2022ko otsailaren 9an / En Bilbao, a 9 de febrero de 2022

Iz./Fdo: Carlos Pereira Rodríguez
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea /
Director Gerente de la Red de Salud Mental de Bizkaia

**88/2022 EBAZPENA I ERANSKINA / RESOLUCIÓN 88/2022
ANEXO I**

ESKAERA / SOLICITUD

- ERAKUNDEAN ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENA / PROMOCION INTERNA TEMPORAL EN LA ORGANIZACIÓN**
- ZERBITZU EGINKIZUNA / COMISIÓN DE SERVICIOS**
- ERAKUNDE ARTEAN ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENA / PROMOCION INTERNA TEMPORAL ENTRE ORGANIZACIONES**

LANPOSTU FUNTZIONALA/PUESTO FUNCIONAL: ANTOLAKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA / TECNICO SUPERIOR DE ORGANIZACIÓN

DESTINOA : BOMS / DESTINO: RSMB

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

DEITURAK ETA IZENA/APELLIDOS Y NOMBRE	
JATORRIZKO ZENTROA/CENTRO DE ORIGEN	
KATEGORIA/CATEGORIA	
NAN/DNI	
TELEFONOA/TELEFONO	

AURKEZTEN DEN DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN APORTADA

- AZKEN DESTINO-JABETZEAREN FOTOKOPIA/FOTOCOPIA DE LA TOMA DE POSESIÓN DEL ÚLTIMO DESTINO**
- TITULAZIOA/TITULACIÓN ACADEMICA**
- EGINDAKO ZERBITZUEN ZIURTAGIRIA/CERTIFICACIÓN DE SERVICIOS PRESTADOS**
- EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTATZEKO AGIRIA/ACREDITACIÓN DE CONOCIMIENTO DE EUSKERA**
- BESTELAKO ZIURTAGIRIAK / OTROS CERTIFICADOS**

Data/Fecha	Sinadura/Firma	Sarrerako zigilua/Sello de entrada

BOMS-EKO PERTSONEN ZUZENDARIA / DIRECTORA DE PERSONAS DE LA RSMB

